Ezezagun batzuek Agoizko Angiluerreka elkarteari su eman zioten atzo goizaldean

Barrenaren ustez, «akordio espainolistek horrelako ekintzak bultzatzen dituzte»

Juan Kruz Lakasta / **Agoitz**

Atzo goizaldean ezezagun batzuek su eman zioten Agoizko Angiluerreka elkarteari. Suak sarrera eta beheko solairuko sabaia kaltetu zituen. Elkarteak izan duen laugarren erasoa da. Ekainaren 17an antzeko eraso bat jaso zuen. EH-Nafarroak, IUk, EAJk eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek gogor salatu dute gertatutakoa.



JOXE LACALLE

Juan Kruz Aldasoro, Txelui Moreno eta Pernando Barrena mahaikideak, atzo Angiluerreka elkartean.

ESPAINIAKO GOBERNUAK Iruñean duen ordezkaritzaren arabera, Agoizko Angiluerreka elkarteak atzo goizeko 3:25etan hartu zuen su, eta 3:45etarako sutea itzalirik zegoen. Itzalketan parte hartu zuten Nafarroako Gobernuko Suhiltzaileek eta Guardia Zibilak. Ezezagun batzuek elkarteko ate nagusia hautsi eta erregaia isuri zuten atean eta eraikinaren barruan. Erregaiaren edukiontzia barruan utzi zuten, eta ateari su eman zioten. Horren ondorioz, elkarteak kalte larriak jasan zituen: ate nagusia erabat kiskali zen, lehen solairuko sabaiko zati bat behera joan zen, eta bigarren soilairua eta hirugarrenaren zati bat belztuta geratu ziren.

Agoizko Angiluerreka elkarteko kideek esandakoaren arabera, erasoa gertatu zelarik auzokide batek eztanda entzun, suhiltzaileei abisua eman eta bere kabuz sutea itzaltzen hasi zen. «Horregatik ez da izan ezbehar handiagorik: Angiluerreka elkartea erabat kiskal zitekeen, eta inguruko eraikinentzat arriskua handia zen, zaharrak izaki, zurezko egitura dutelako». Hori guztia dela kausa, elkarteko kideen aburuz atzokoa jasan duten lau «eraso faxistetatik larriena izan da». Angiluerreka elkarteak euskal kulturaren alde egiten du lan. Horretaz gain, taberna dauka beheko solairuan, eta bazkideek afariak eta bazkariak egiten dituzten goikoetan.

Barrena: «Akordio espainolistek halakoak bultzatzen dituzte»

EH-Nafarroako parlamentario Pernando Barrena Agoitzen izan zen atzo, Angiluerreka elkarteak jasan erasoa salatzeko. Haren aburuz, «egunotan UPN eta PSN lotzen ari diren abertzaleen aurkako akordio espainolistek horrelako ekintzak egiten dituztenei sustengua ematen diete».

AABen aburuz, «ez da kasualitatea gerra zikina Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko kideen kopurua itogarria den tokietan berpiztea». Halaber, AABek salatu dute azken hilabeteotan antzeko ekintza ugari izan direla Iruñerrian, «besteak beste, Iruñeko Sanduzelai auzoko gaztetxea kiskali izana». IUk hedabideetara igorri agiriaren arabera, «erasoak erakusten du gure gizarteak alde bateko zein besteko indarkeria adierazpenak atzean uzteko premia larria duela». EAJk «onartezintzat» jo zuen gertatutakoa: «Xede bakartzat gatazka luzatzea dutenei hausnarketa egitera eta elkarguneak bilatzera dei egiten diegu».

Kateaturik presoen eskubideen alde

Gazte bi Espainiako Gobernuak Bilboko Gran Vian duen ordezkaritzaordeko burdinazko ate batera kateatu ziren atzo euskal presoen Euskal Herriratzea eskatzeko. Aldi berean, PPk «bere jarrera inmobilista» albo batera utzi eta presoen eskubideak gorde ditzan eskatu zuten. Goizeko 11:00etan Andeka Goñi eta Susana Conbarros Gran Via eta Iparragirre kaleen ertzean dagoen hesian kateatu ziren. Ordu erdi inguru egon ziren Ertzaintzaren hiru auto etorri eta gazteak identifikatu osteran kateak moztu eta libre utzi arte.



MIKEL MARTINEZ

Iruinen aurkako auzia artxibatzeko eskatu dio fiskalak EAEko Auzitegi Nagusiari, deliturik ez dagoelako

Instrukzioko epaileak egindako eskaerari erantzun dio horrela fiskalak

Agentziak / **Madril**

IÑIGO IRUINEN aurkako kasua artxibatzeko eskatu dio fiskalak EAEko Auzitegi Nagusiko Jose Maria Satrustegi epaile instruktoreari. Eskaera epailearen aginduari erantzunez egin du fiskalak, ekainean auzia berriz martxan jartzea erabaki baitzuenSatrustegik. Bost urte geldirik egon ostean, epaileak bost eguneko epea eman zien akusazioei —AVT taldeari eta fiskalari— Iruin epaitzea nahi zuten edo kasua artxibatzea nahi zuten azaltzeko.

Fiskalak dioenez, Iruinek egindakoan ez dago deliturik eta EHko legebiltzarkide eta abokatuari ezin zaio leporatu ETAri laguntza ematea. Izan ere, 1990ean ETAren eta Oiartzungo bi enpresariren arteko bitartekari lana egiteagatik ireki zuten Iruinen aurkako kasua. ETAk 25 milioi pezetako *iraultza zerga* eskatu zien bi enpresariei, eta haiek Iruinengana jo zuten, abokatuak erakunde armatuarekin kontaktuan jar zitzala eskatuz. Iruinek hala egin zuen, eta orain fiskalak dio egindakoan ez dagoela deliturik.

Iragan martxoan Donostian atxilotu bederatzi lagun auzipetu ditu Palacios epaileak

Agentziak / **Madril**

ENTZUTEGI NAZIONALEKO Teresa Palacios epaileak Sergio Polo, Kepa Etxeberria, Egoitz Gurrutxaga, Gorka Lazkano, Leire Pikabea, Kandido Sagarzazu, Gotzon Aranburu, Garikoitz Paskual eta Luis Rufo auzipetu ditu; lehenengo biak *Donostia komando*-ko kide izateagatik, eta beste guztiak ETAri laguntza emateagatik. Martxoan Espainiako Poliziak Donostian eta inguruetan egindako operazioan atxilotu zituzten bederatzi lagunak.